

BUSINESS INTELLIGENCE: IKASI AGINTE KUADRO BAT POWER BI ERABILIZ SORTZEN IKASTAROA (ONLINE)

Sortu Business Intelligence soluzio bat, hasi eta buka, eta abiarazi zure negozioan edo enpresan, hezitzaile eta aholkulari espezializatuen laguntzarekin.

GAIA	Informatika, Telekomunikazio Sistemak eta Sistema Txertatuak
ECTS/ORDUAK	90 ORDU
EGUTEGIA	2025/04/29 - 2025/07/08 At
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Online

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA

Ikasi hainbat datu-iturri konektatzen, horien transformazioa automatizatzen eta Power Birekin panel interaktiboak sortzen online ikastaro honetan.

Business Intelligence-ren funtsezko tresnak menderatzeaz gain, alderdi hauetan sakonduko duzu orain:

- Adimen Artifiziala Power BIri aplikatuta.
- Copilot erabiltzea Power BIin, analisia eta erabakiak hartzea optimizatuz.

The logo consists of the letters 'mn' in a bold, dark teal, sans-serif font.

Mondragon
Unibertsitatea
Formación para
Profesionales



ONLINE

STREAMING
Y
SESIONES
GRABADAS

Business Intelligence

APRENDE A CREAR
UN CUADRO DE
MANDO CON
POWER BI

Narratiba, interakzioa eta Txostenen Prototipoak gaiari buruzko saio berritzaile bat gehitu dugu, datuak aztertzeaz gain, modu argi eta eraginkorrean komunika ditzazun.

Hori guztia, trebatzaile adituen laguntzarekin eta zure enpresa-proiektua garatzeko aukerarekin.

HELBURUAK

Datuak eta horien tratamendua ezaugarri kritiko bihurtu dira enpresen ezagutza arlo guztietan (finantza, salmentak, errentagarritasuna, ekoizpena, kostuak, erosketak, logistika, stockak, produktibitatea, errendimendua, kalitatea, bezeroen kudeaketa, marketin digitaleko ekintzen jarraipena, web azterketa, sare sozialak, etab.).

Negozio adimenak edo Business Intelligence izenekoak “Big Dataren” ekosistemaren baitan daukan rola ren testuingurutik abiatuta, datuak modelatu, aztertu eta bistaratzeko planteamenduak, metodoak eta tresnak erakutsiko dira tailer honetan, bai eta hainbat arlotan duten aplikazioa ere; esaterako: ekonomia zientziak, administrazio zientziak, enpresen zuzendaritza eta marketin digitala. Eta horretarako, aintzat hartuko dira datuen erabilerarekin eta kudeaketarekin lotutako lege eta segurtasun arauak.

Jardueraren sektoreko zenbait profesionalak kasu praktikoak eta tailerrak egingo dituzte, aipatutakoak arlo guztietan duen aplikazioa aztertzeko. Hala, parte hartzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte profesionalak Business Intelligence proiektuetan dituzten esperientziak.

Dena den, ikastaro honek daukan ezaugarri berezia da helburu nagusitzat daukala parte hartzaile bakoitzak bere BI soluzioa sortzeko eta abiarazteko aukera edukitzea. Horretarako, Microsoften Power BI doako tresna erabiliko dute, nagusia baita Business Intelligence tresnen artean.

Tailerrean, parte hartzaileek prestakuntza magistrala zein praktikoa jasoko dute, euren datu eredu propioa sortzeko gai izan daitezen. Era berean, aholkularitza ordu pertsonalizatuak ere izango dituzte, BI tresnarekin adituak diren profesionalen eskutik. Ordu horietan zehar, proiektuak egikaritzean sor dakizkieken zalantzak argitu ahal izango dituzte.

Enpresa barnean datuak aztertzeko proiektu bat garatu eta abiarazteko gai izatea.

Enpresa barnean erabakiak hartzeko txostenak eta aginte koadroak osatzea.

Microsoften Power BI negozio adimenerako sorta osoa erabiltzaile aurreratuaren mailarekin erabiltzea.

Negozio aukerak kontzeptualizatzea, eta datuak bistaratuz joerak identifikatzea.

Enpresen informazio sistemak eta azpiegiturak zein datuen analisirako metodoak eta teknikak ezagutzea, galderak eta hipotesiak formulatzea, eta negozioarako erabilgarriak diren ondorioak ateratzea.

Erabilera eraginkorra ulertzea eta aplikatzea, eta dakartzan ondorio teknologiko, legezko eta etikoak ezagutzea.

Enpresa funtzio eta prozesu nagusietan datuak aztertzeko metodoak eta tresnak ulertzea eta aplikatzea.

Narratiban, elkarreraginean eta txostenen prototipoetan gaitasunak garatzea, lortutako emaitzen komunikazio argia eta eraginkorra bermatuz.

Copilot aplikazioak Power BI barruan zer aplikazio dituen jakitea.

NORI ZUZENDUA

Edozein sektoretako profesionalak (**industria, marketina, komunikazioa, finantzak, informatika, ecommerce, big o** **etako arduradunak...**), hauek nahi dituztenak:

- Datuak Power BIrekin bistaratzeko eredu bat sortzea.
- Neurtzea, monitorizatzea eta erabaki eraginkorrak hartzea.
- Zure enpresarako txosten aurreratuak diseinatzea eta garatzea.
- Adimen artifiziala eta Copilot Power BI aplikatzean, datuen analisia optimizatzeko.
- Txostenak aurkezteko narratiba eta interakzioa hobetzea.

PROGRAMA

M1 Introducción al curso

- M1.1 Ikastarora sarrera

- M1.2 Ikastaroaren ibilbide-orria
- M1.3 Proiektuen garapena I

M2 Business Intelligence atarikoak

- M2.1 Zer da Business Intelligence?
- M2.2 Blko tresna nagusiak
- M2.3 Zergatik Microsoft Power BI?

M3 Aginte-panelak eta KPlak, datuak kudeatzea hobeto kudeatzeko

- M3.1 Datuak eta enpresaren garrantzia
- M3.2 Data Science eta Decision Science
- M3.3 Datuak, informazioa, erabakiak
- M3.4 Enpresa-kudeaketaren printzipio orokorrak
- M3.5 Enpresa batean erabakiak hartzea
- M3.6 Enpresan sistema erabakigarria modelizatzen
- M3.7 Aginte-koadroak erabakiaren euskarri gisa
- M3.8 Proiektuen garapena II

M4 Power Blko ekosistemaren sarrera

- M4.1 Power Blko lan-zikloa
- M4.2 Datu egituratuen jatorrietarako konexioa

M5 Datuak Power Queryrekin eraldatzea

- M5.1 Power Queryrako sarrera
- M5.2 Interfazea
- M5.3 Kanpoko jatorrietako datuak inportatzea
- M5.4 Datuei forma ematea kontsulta batean
- M5.5 Datuen integrazioa
- M5.6 Datuen normalizazioa
- M5.7 Kontsultak erabiltzea
- M5.8 Datuen optimizazioa, datu-meatzaritza eta eraldaketa aurrerratuak.

M6 DAX lengoaia

- M6.1 DAX adierazpenen sarrera
- M6.2 Funtzio matematikoak, estatistikak, testua eta eguna eta ordua.
- M6.3 Nabigazio-funtzioak eta taulen arteko erlazioa.
- M6.4 Agregazio-funtzioak
- M6.5 Denbora-adimeneko funtzioak
- M6.6 DAX aurrerratuaren funtzioak

M7 Power BI Desktop

- M7.1 Primeros pasos con Power BI Desktop
- M7.2 Creando informes avanzados con Power BI Desktop
- M7.3 Desarrollo de proyectos III

M8 Legezkotasuna eta pribatutasuna datu-ingurune batean

- M8.1 Pribatutasuna, legezkotasuna eta DBEO

M9 Power BI Service-rekin partekatzea eta argitaratzea

- M9.1 Erabiltzaileak eta rolak Power BI Desktop-en
- M9.2 Datuen parametrizazioa
- M9.3 Power BI hodeian. Kontuak eta lan arloak.
- M9.4 Hodeia konfiguratu: eguneratze programatuak, segurtasun-neurriak...

M10 Machine Learning Power BIrekin

- M10.1 Machine Learning Power BIrekin
- M10.2 Proiektuen garapena IV

M11 Proiektuen aurkezpena

M12 Estra: Narratiba, interakzioa eta txostenen prototipoa

- M12.1 UX kontzeptuak.
- M12.2 Ikusizko diseinua, data storytelling-i aplikatua.
- M12.3 Elkarreragina.

METODOLOGIA

Lan-metodologia “learn by doing” edo “eginez ikasi”-n oinarritzen da; horrela, prestakuntza garatzean, BIko tresnak erabiliz interaktiboki sortutako datu-ereduak diseinatuz, modelatuz eta bistaratuz lortzen da ezagutzaren transferentzia.

Ikasleek Moodle-rekin sortutako on line hezkuntza-plataformara sartu ahal izango dute. Bertan, moduluka eskuragarri izango dute material guztia, eta, horrez gain, hainbat foro eta komunikazio-kanal izango dituzte ikastaroan parte hartzen duten gainerakoekin eta irakasle guztiekin.

Lantegia prestakuntza modulu desberdinetan banatzen da eta azken proiektua aurkezten da. Modulu bakoitzean, hauek txandakatuko dira:

1. **Bideo grabatuak, kontzeptu, metodologia** eta tresnei buruzko prestakuntza magistralarekin, Mondragon Unibertsitateko irakasleen eskutik
2. **Aplikazio praktikoa zuzeneko online** saioetan
3. **Enpresa proiektu erreala** gauzatzea, tutoretza saioekin

Parte-hartzaileek beren eskura izanen dituzte aplikazio arlo ezberdinetan espezializatutako tutoreak, proiektua gauzatzeko egunetan parte hartzea lagundu, gidatu eta sustatuko dutenak.

Amaitzeko, parte-hartzaile bakoitzak egindako proiektua zabaltzeko/bateratzeko saioa egitea proposatzen da.

KOORDINAZIOA

Koordinatzaile orokorra:

Beatriz Laskurain Larrañaga

Estrategia eta marketin digitalaren, Business Intelligence Power eta datuen analisiaren arloetan, enpresei irakaskuntza eta aholkularitza ematea.



blaskurain@mondragon.edu

607 530 650

[linkedin.com/in/beatrizlaskurain/](https://www.linkedin.com/in/beatrizlaskurain/)

ERAKUNDEA

Power BI – Datu-analisia eta Business Intelligence ikastaroa Mondragon Unibertsitateak antolatu du.

ONARPEN BALDINTZAK ETA PROZESUA

Interesa duten guztiek izena emateko orria bete beharko dute.

Parte hartzaile bakoitzak bere ordenagailu eramangarria ekarri beharko du.

Informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan: Beatriz Laskurain / blaskurain@mondragon.edu

FINANTZIAZIO ITURRIAK

Ikastaro honetako ordu batzuk Fundae bidez hobari daitezke enpresaren izenean matrikulatutakoen kasuan.

Mondragon Unibertsitateak ez ditu hobarien kudeaketak egiten. Baina Fundaerekin eskaera egiteko prozesuan ikasleei lagunduko dieten enpresa laguntzaileak eman ditzake.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan honekin:

AINHOA GORONAETA

[+34 664 266 716](tel:+34664266716)

agoronaeta@mondragon.edu

LEKUKOTZAK

Ainhua Chapero Garnika

Kudeaketa ekonomikoaren plangintzaren eta jarraipenaren arduraduna Mutualian

“Power BI ikastaroak datuak aurkezteko eta erabakiak hartzen lagunduko duten ondorioak ateratzeko sakontasuna eta trebetasuna eman dit.

Beste aplikazio-aukera asko zabaldu zaizkit, lehendik dagoen informazioarekin eta beste batzuekin, informazioa modu analitikoan eta prediktiboan erabiliz. Garrantzitsua iruditzen zait, neurri handi batean autonomia izatea ez ezik, proiektu zabalagoei ekiteko dauden aukerak ezagutzea ere.”



Irene Castro Hurtado

TUBACEXeko TTI-ACVA laborategiko metalurgia- eta kalitate-arduraduna

“Ikastaroak 0(e)tik Business Intelligence tresna oso erabilgarri baten ezagutza eman dit, datuak automatizatzeko eta aztertzeke aplikazioak garatzeko aukera emango didana. Utilitate asko dituen tresna da Power BI, eta aplikazio asko bururatu zitzaizkidan lehen



egunetik. Aplikazio horietan, beharrezkoa da informazioaren analisia automatizatzea eta erabakiak hartzea erraztea.”

Fernando López de Heredia Larrea

Proiektu informatikoen arduraduna, HAZI.

“Power BI ikastaroak erakutsi dit garrantzitsua dela helburua ardaztea eta datuak aztertzeke ikuspegi desberdinak izateko aukera irekitzea.

Datu asko erabiltzen dituzten kudeaketa-aplikazioak garatzen ditugu nire lanean. Datu horiek informazio garrantzitsu bihurtzeko erabili beharreko tresnen artean, POWER BI oso leku garrantzitsua izango da. Lortutako emaitzei buruzko informazioa erakusteko eta etorkizunean aurreikuspenak egiteko balioko digu tresna horrek.”



PLAZAK

Plaza mugatuak

PREZIOA

Enpresaren izenean matrikulatzen diren ikasleek ikastaro honetako orduen zati bat Fundae-ren bidez (lehengo hirukoa) hobaritzen ahalko dute.

Mondragon Unibertsitateak ez ditu hobarien kudeaketak egiten. Baina Fundaerekin eskaera egiteko prozesuan ikasleei lagunduko dieten enpresa laguntzaileak eman ditzake.

2.100€

Aurreikusitako zenbatekoa guztira
2024-25

90 ORDU

INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiago behar izanez gero:

BEATRIZ LASKURAIN LARRAÑAGA

+34 607 530 650

blaskurain@mondragon.edu

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/datuen-modelaketa-eta-bistaratzeari-buruzko-ikastaro-aurreratua>